

## 17. eta 18. GAIAK

1.- Zein EZ da nukleosidoen analogoa?

- a) AZT-zidobudina
- b) DDI-Didanosina
- c) ABC-abakabir
- d) TDF-tenofobir

2.- Zeintzuk dira GIB-ak sortutako infekzioa tratatzeko jarraibideak?

2 nukleosido edo nukleotidoen analogoak + analogo ez nukleosido batekin // 2 nukleosido edo nukleotidoen analogoak + proteasaren inhibitzailearekin

3.- Zein da erabiltzen den farmakoa garuneko toxoplasmosia ekiditeko/prebentziorako immunodeprimituetan (GIB-a)?

- a) Darunabir
- b) Truvada®
- c) Kotrimoxazol (trimetoprim + sulfametoxazol)
- d) Pentamidina

4.- Zein da tuberkulosiaren tratamendua immunodeprimituetan (GIB-a)?

Rifampizina+isoniazida+pirazinamida+etambutol 2 hilabete + rifampizina+isoniazida 7 hilabete gehiago

5.- Ze farmakorekin tratatzen da Herpes zoster genitala?

Balaziklobir edo Famziklobir-arekin aho bidez, dosi baxuetan.

6.- Ze farmakorekin elkartzen dira farmako zitostatikoak, azken hauek eragiten dituzten okak eta goragaleak prebenitzeko?

Antiemetikoekin: metoklopramida, ondansetron eta granisetron

7.- Zergatik batzuetan beharrezkoa da erabateko nutrizio parenterala erabiltzea zitostatikoak erabiltzen direnean?

Farmako hauek sortzen duten mukositisagatik: ultzera zabalak eta mingarriak ahoan, ingesta zailtzen dutenak. Mina arintzeko soluzio anestesikoak erabiltzen dira, nistatina eta kamamila ere bai.

8.- Nola tratatzen da zitostatikoek eragiten duten neutropenia?

Kolonien faktore bizkortzaileekin: filgastrim = G-CSF

9.- Zein da eragin zitostatikoa duen antibiotikoa?

Bleomizina

10.- Zeintzuk dira hormonoterapian erabiltzen diren farmakoak (zenbait kartzinomen tratamendurako)?

Antiandrogenoak: flutamida eta leuprorelina.

Progestagenoak: progesterona.

Antiestrogenoak: tamoxifeno.

11.- Zein da immunodepresorea?

a) Mikofenolato

b) Zisplatino

c) Paklitaxel

d) Zidobudina

12.- Zein da immunodepresorea?

a) Metotrexate

b) Adriamizina

c) Filgastrim

d) Binkristina